

# "PRINCIPE DE VIANA"

SUPLEMENTO MENSUAL DE LA REVISTA, DESTINADO AL FOMENTO DEL VASCUENCE

DIPUTACION FORAL DE NAVARRA

Franqueo concertado  
N.º clasificador 34/60

DELEGADO DIPUTADO. M. J. URMENETA

Laugarren urtea — Pamplona. Abril 1969 — Jorraita (Aprilla) - Iruña. - 37 gn. zenbakia

DIRECTOR: J. E. URANGA



## ALELUYA...!

Pazko jaien aurreramendu bat bezala, berri aundia ekarri digu aurtengo garizima azkenak. Gure Eliz Barrutiko Artzai maitea Kardenal izendatu du Aita Santuak. Aleluya.

Entzuna ginuen gure Artzaiaren jakitate eta izaera neurritsuaren berri. Iruñarako izendatzean gauza aundiak esan ziren baztarretan. Toledo rako beharra zela ere zabaldu zen; Espainia ko gotzaien onorezko gain-mailan jarriko zen orduan eta irrutiko zerbait izango zen guretzako bere izena. Beste norbait poztuko zen bere inguruan; baño, kardenalik gabe geldituko ginen Naparroan. Lehen bezala.

Izan ere, bere biziko garizima beltza zeraman bizkar gainean San Fermin en Eliz Barrutiak. Era guztiko sorgin aize nahasiak astintzen zuten aspaldi ontan. Agotan ginen danok; eta paper arinen esku zikinetan. Apezgai eta apezak, zahar eta gazte, artzai eta artalde, berritze sakon baten erdi-minak bere aragian sendi zituen gure Naparroko artaldeak. Aize bolara onek nora eremango ote ginduen galdetzen zutenak ba ziren; aurreragi joateko bildur zirenak ere bai. Eta Artzaiak batzun eta besten scsegatzen nahiko lan ba zuen. Izendatze hau neke askoren saria da, eta jokabide argi, jatorra, delakoaren ezaugarri. Jainkoaren bi-deak.

Berak, besterik dio: «bera ez baño Naparroaren ohore eta goralmena zela», adierazi zuen belaxe. Eskerrik asko! Hala da; Naparroari ere bere zatia tokatzen dakio. Gertaera aundia da guretzat. Ez da beste kardenal bat baizik ezagutu, denbora berean Iruñeko Ar-

tzai izana. Eta seirehun urte inguru ba ditu jolasak; 1391'an.

Gauzak nola diren! Orduan ere denbora gaiztoak zituen Elizak. Etzuten kristau guziak Erromako Aita Sandua on-hartzen. Ez apez eta gotzai guziak ere. Naparroko Martin Zalba, orduko kardenala, Aragoiko Pedro Luna'ren alderdikoa zen eta azkenean oso gaizki ibilia gainera.

Oraiko aldian, Aste Sanduko otoitzetan agertzen den eran, «zorioneko nahasmenduak!» —esan ginezake—, «zuzentzailetako ohore aundietako Artzai Nagusia ekarri bai digute». Bihotzez eskertzekoa da gaurko egoera zail-zail hontan. Bere goralmenak Iruñeko Eliz Barrutia goratzen du.

Gure artean daraman denboran apaltasun aundia erakutsi du. Berria jakin aurreko egunean Huarte Arakil'en ginuen Sakana'ko apezan artean. Ekarki zuen laguntzailea etxera bialdu eta —auto stop—, atsaldean edozein apezekin itzultzeko asmotan, esku hutsean gelditu zitzaigun. Tudela'n, Naparroa'ren behereko puntan, beste apez billera batean, arrapatu zuen berri onak. Denbora gutxiz gure lurralde gehienak ibili ditu. Lan onek berea esaten du.

Aurtengo pazkoaldiak guretzako zeukan poza aundiegia zen garizima ondoren arte lehertu gabe egoteko; eta Andre Dena Mari Neketako egunera aurreratu zingun. Aleluya.

J. M. S.

## 300 ETA 300

**Lenbizikoa:** Menditarrean gertu-gertu dagon Andorra Xaharrak, irueun pezetekin ornituko ditu aurtengo gerrarako beharrezko guziak. Irueun pezetekin zaindeko dute ango gizonak beren lur maitea.

Andorra danetik, bakean bizi izan da orai arte Andorra. Bakean bizi nai du gero re.

Norbaitek (ez naiz croitzen nork) dolar sailtxo bat bidali omen dio Andorretarren buruzagiari, unek erriko irueun pezeta oiek dolarrekin elkartuz azkartzeko. Elkartzean dagola indarra ez diote ba?

Baña, buruzagi au buruz argi da ere. Dolorrak iabeari itzuli dizkio, behartsueri ematean ederki eginen lukela eztki adieraziz. Dolarren beharrik ez dauka buruzagiak. Behartsurik ere ez da naski Andorra Xahar ortan. Ez baidu diru pilla aundixago edo ttipixagoak bakarrik behartsu edo aberats egiten bat.

**Bigarrena:** Jabier erritxoan, emakumezko Misio-Etxeko bizitz indartsu ura sortu zala, martxoaren amalauean ogeitaborz urte bete dira.

Ogeitaborz urte oketan, gutarteko 300 neskatx, beren lana, bictza ta izate osoa Kristori ta animen onarako egin behar danari osoki emanik dabilz. Indian, Japonen,

«La Verdad» batean ta berze paper batzuetan ere agertu izan dire bi berri ok beren orduen.

Kongon, Benezuelan ta berze leku aski zailetan, lan ta lan ari dira, lurreko atsegikeri ta ontasuneri gutxi begiratuz, baño animen alde dezaketan guzia egiñaz.

On gutxi ekarri digute gerrek, ziurki. Ala ere, gerra baten ondorio ona izan da 300 emazteki oken Misiotarako ioera.

Emengoan biotzak Misio-lanetara bulkatzeko asmoakin etorri zitzaigun A. Domenzain Japondik gutartera. Ain zuzen, gerra berri ikaragarri bat piztu zan: ta Aita au ezin itzuli Japonera iñolaz!

Berriz arat joateko ordua arte, batean ta berzean itzegin ta lan, biotz azkarren billa ibili zan. Bere lan auetatik bat, Jabierko Misio-Famili au, gotzaiaren baimenakin, sortzea da.

Irueun aldiz irueunean barratu ta zabaldu bedi Jabierko Misio-Familia gutarteko neskatx Iaungoikozaile ta biotz azkarrekoekin.

Dolarrik gabe; bakean; ederki.

Lana, biotza ta izate osoa, animak zeruratzeko: ederki baño obeki.

Zorionak!!!

IBARRONDO

## POZGARRIA EUSKALDUNENTZAT

«Humanae vitae» enziklika euskeraz. Giza-Biziaz izenarekin Intzar Damaso Aita Kaputxinoak euskertaturik il onen 21'ean erakutsi zaigu Apezen Seminarioko billeran.

Poz aundiz ikusi dugu Apez euskaldunek, guri ta euskalerriko ezkondu guziei ain bearrezkoa zaigun Aita Santuaren erakusketa. Auxe baita Elizak eta aren Ba u ta Irakasle berdin gabeak ezkontzaz esan digun azken itza.

Azken-itza deitu diteke, gai ortaz Batikano Eliz Batzar aundian eta Lendiko eta geroztik ainbeste solas egin delakoz, eta ez on zen bezala.

Ainbeste izkuntzetara itzuli duten enziklika au, azkeneko, Intzar Damaso, aspaldik omisiolari ta euskaltzainak eman digu.

Eskerrak, jakin dugunez, «Principe de Viana»'ren laguntzari atera da, ematen zaigun bezin merke. Bost pezetaz.

Enziklika onen gaia ez ezaguna da ta berez zalla. Baño ikasi bearrezkoa ezkonduentzat aurrenik, baño ezkon-gai direnentzat ere bai. Zergatik?

Aita Santuak ortxe erakusten digulako zer den ezkontza; zertarako ta zer legez Jaunak emana ta ezarria dagon, ezkontzan zer zil edo zillegi duten ta zer ez. Ezkontideak nola bear duten izan bata bestearekin, zer nolako artu-emanak beren artean. Aurak sortzeko edo aldiz ez sortzeko zer eginbideak dauzkaten eta erabili bearrak diren. Amaren osasunerako noiz-pait zer zil izan litzaieken. Maitetasun egiazkoak zer ezagumbide dauken eta zer eginbear gizonak.

Aita Santuak bere itza zutzenzen die Sendalari ta beren laguntzalei, Jakintsuei, ezkondu berei, Apaizei ta Gotzai edo Obispo jauniei. Bakoitzari bere itz egokia.

Erritarrak lenbaitlen zeren Apez Jauneri eskatu. Ba-liteke berekin izatea.

M. O. Z.



## ELIZAREN ITZA

### Batikanoko II Eliz Batzar Nagusia ELIZA GAURKO MUNDUAN

Laguntza aundi bat ematen dio gizonari, bere nortasuna lortzeko, elkartzek; baño askotan elkartzeko giroak, ustela danean, on egitea eragotzi eta gaizkia egiñarazten dio. Sarritan politika, ekonomia edo gizarteke ezta-baidak sortuko dituzte matxinada eta nasketak itxuraz, baño gizonaren ezin ase aundi-nahi eta berekoikeria dira ben-benetako oker oien sustraiak. Besteei begira, denei begira, denen ona (bien común) billatuz, antolatzen ahal dira elkargoak, baño beretik utzi gabe, bere buruari kendu gabe, ez ditzeke besteren eskubideak gorde.

Gaurko egunean, gizonaren eskubideak aitortzen dira, inñori ukatu ez ditezkenak; jana, jantzia, bizi-lekua, ezkontzekoa, eziera, lana, izen ona, begiramentua, egi jakitea, bere uste zuzenaren aroa jokatzeko, eta bidezko askatasuna religio lanbidean ere. Gizarteke arauak eta aurrerapenak, beraz, gizonen eskubide oiek lo tzeke zuzendu bear dira eta ez gizona murriztu gizartea (sociedade) aberasteko, sasi-jainko bat bezela aunditzeko «Jaiia gizonarentzat, eta ez gizona jaiarentzat egin zan» (Mt. 2-27).

Giro onek egi, zuzentasun eta maitasunean azi bear du, baño len aipatu dugunez, ortarako, besteren serbitzurako prest egon bear du bakoitzak, lagun urkoa berezkuntzik gabe, bere burua bezela maitatu, ez dakanari neretik emanda, etxe atarian zetzan Lazaro giza-hajoari aberatsak egiten ziona egin gabe. Baztarrera botatoko zahar bat dala, jaso, erbesteko bat dala, leku eman, langille arrotz bat, lana eman, sasikume bat bere erru gabe gaizki ikusia, ongi artu goseak dagonari jatera eman «Nere senide txiki-nari egin zeniotena Neri egin zenidatena». (Mt. 25, 43).

Biziaren kalteko okerrak, gizon iltze, jaiio aurreko aur galtze, bere bizi kentze e. a.; Oso-tasunaren aurkakoak, puskaan bat moztu, oñaze bizik eman, nola-nahi espetxetu, erbestetu, menderatu, ema-galdu, aurrak gaiztotu, e. a., eta oken kideko beste oker frankok gizadiaren izena itxusitu eta menderatuak baño zakarrago gelditzen dira menderazalleak Jainkoaren eta gizonen aurrean.

## ESKVALERRIKO LEIOA

### Erramon Ortiz eta Patxi Berrio-ren oroipengarria

Bi mendizale hauek, denek dakizuten bezala, «Picos de Europa» delako Bulnes'ko Naranjo mendian aurkitu zuten eriotza aitz gogor, luze eta zail hau igotzen zeudelarik.

Patxi Berrio, Donostiko semea zan, mendigoizale sutsu eta paregabekoa, ezkondua. Bestea, Erramon Ortiz Tolosarra, bestea bezin aitz-igozale goimaillekoa. Biek il ziran Euskalerritik urrutian Otsaillearen izugarritzko egun otz batean.

Edozeinek bere famelien aldeko diru laguntza eman dezake Tolosako «Uzturre» deitutako Mendi-Elkartasunari bialdurik. **Ogeitabost pezeta bo-noak edo dirutxartelak balio du.**

Goian beude euskaldun mendizale maite hauek eta Betiko begira ditzatela ain gogoko ditugun gure euskal mendigoizalleen Elkartasunak.

### Euskalerriko bi amonarik zaharrenak



Bata Bizkaitarra, Bermeokoa «Mañu» deritzaion balleko «Ireza-baleta» izeneko baxerrian bizi dena. Atsu honek ehun ta sei urte ditu mere bizkarrian eta oraindik bera bakarrik goatzetik (ogetik) jeiki, jantzi eta etxeke lan batzuka egiten omen ditu. Eskolastika Mendizabal da bere grazia.

Bestea beste aldeko euskalerrian sortua, Lekorne-Atizanen bizi, «Porttua» deitu etxean. Amatxi honek ehun ta iru urte dauzka beteak, bizkor dago oraindik. Marie Leon izen-deitura.

Gure amonarik zaharrenari gorainziak biotzez.

Marie Leon'en potreta, fotoa argitaratzen dugu bakarrik bestearen ez izanki tamalez.

Foto hau Baiona'ko «Herria» euskal astekaritik artu dugu.

### Frantzian euskera aur txikienen eskoletan

Udaberriak, berri pozgarri hau ekarri digu: **Euskera frantxesarekin batean erakutsiko duela Eskolategietan.**

Euskaldun gurasoek ala eskatu zioten Paris'eko Gobernuari eta guraso hauen bitartez beste aldeko Euskalerriko Agintarieke beste ainbeste eskatu. Hau da Euskalerriko guzian egin bear dena, Euskeraren alde behar dun guzia egin eta izkuntz ofizialearekin batean Euskalerriko Eskoletan erakutsi.

Hazparne'ko errian bilgura izan dute Frantziako Gobernuaren aldetik etorritako jaunek eta Euskalerriko agintarieke. Hauen artean ziran han: Goyhenetxe, Davant, Barrenetxe, Errecalde jaun ezagunak eta hauetaz gainera beste aldeko Napparoko Donibane Garazi erriko seme den Intxauspe diputadu zintzo eta famatua.

Arrazoin argi eta garbiak denek yakiten zutenak aurrean zituzten elkarrizketa hauetan, esateko: «Txikitatik bi mintzaera yakiteak, erderaz eta



## Hacia el vasco común unificado (II)

Por Fr. Luis Vilasante

(Tomado de la Revista «ARANZAZU»)

### La lengua literaria es ante todo escrita

Una característica que es preciso notar y tener muy en cuenta: las lenguas literarias son primariamente escritas y solo secundariamente habladas. Sabemos que el idioma primero se habla y luego se escribe. Pero en la lengua literaria ocurre justamente al revés. Y esto es muy necesario tenerlo en cuenta si se quiere comprender la naturaleza de la lengua literaria. Todas las lenguas literarias aseguran su uniformidad a base de unificar la forma escrita. Dicho con otras palabras: lo que se unifica es la lengua escrita. Se pone sumo cuidado en tener bien fijada y unificada la forma de escribir. El andaluz dirá, por ejemplo, «zordao», pero se le enseñará que debe escribir «soldado». Si cada uno escribiera como habla cuando habla espontáneamente, en seguida se rompería la unidad. Esta lengua literaria que poseen todos los idiomas pujantes y socialmente prestigiados, es, pues, un instrumento un tanto convencional, una lengua escrita, no precisamente espontánea. Lo que está sólidamente fijado y se conserva celosamente es la forma de escribir.

Si recordamos estos principios, se comprenderá que cuando hablamos de la lengua literaria vasca nos referimos a la lengua escrita. Las variedades de la lengua vasca hablada seguirán existiendo; pero por encima de ellas nos urge poseer la lengua escrita fijada y uniforme, que sirva de instrumento y lazo de unión entre todos los euskaldunes. Sería la «koiné», la lengua común utilizada para usos literarios por los vascos de todas las regiones.

### La objeción del artificialismo

Se lanza contra el proyecto la objeción del artificialismo. Tal lengua sería un esperanto, más que una lengua viva. Michelena reconocía de buen grado la validez de esta objeción. Pero —decía— ¿es que todas las «koinés» no son también en cierto grado esperantos, o sea, lenguas convencionalmente fijadas y estandarizadas?

### La objeción del riesgo

También reconocía que al meterse en esta aventura se corre un

riesgo. Pero con dejar las cosas tal como están, ¿acaso no se corre también un riesgo, y un riesgo mayor, por cuanto se ve a dónde lleva este camino? Vale, pues, la pena de correr ese riesgo, por ver de sacar al idioma de su actual estado.

### El pleito de la «h»

Tratándose de una lengua que ante todo es escrita, el primer punto que se debe uniformar y fijar es el de la ortografía, pues la ortografía es el ropaje o aspecto exterior de las palabras escritas, las cuales entran por los ojos y se fijan en el espíritu con la óptica que les presta su ortografía. La ortografía vasca afortunadamente está hoy prácticamente unificada. Solo existe una grave discrepancia, que es precisamente el relativo a la «h». En unos dialectos literarios se emplea, en otros no. La unificación supone o la adopción por todos o la supresión por todos de dicha letra. La supresión de una letra que es pronunciada (en forma de aspiración) en una parte importante del país y que cuenta con una tradición tan abonada en la historia literaria, no podía aceptarse. El mismo Michelena enunció el principio: Cuando unos vascos distinguen una particularidad y otros no (tratándose de particularidades de gran aval en la tradición literaria), los que la distinguen son los que tienen la razón. Así, en lo hablado, hay muchos que no distinguen la «z» de la «s», pero en lo escrito se enseña a todos a guardar la distinción. En consecuencia, si somos lógicos, parece que la unificación ortográfica nos pide a todos la adopción de esta letra. De otra suerte siempre andaremos escribiendo las mismas palabras unos de una manera y otros de otra.

Hace ya algunos años que el Sr. Aresti lanzó a la Academia el siguiente reto: Yo pido a la Academia que me diga cómo se debe escribir la palabra (h)artu. (Es una palabra que hasta ahora unos escribían con «h» y otros sin ella).

### Razones a favor de la «h»

El Sr. Michelena expuso las razones que militan en pro de la adopción de la «h». He aquí algunas: 1) la generación joven de escritores de este lado del país ha optado ya por ella (razón «biológica»). 2) Es

un instrumento de unidad entre los vascos. 3) Su sonido y empleo fue en tiempos pasados universal en todo el país, aunque luego se restringió a los dialectos vasco-franceses. En efecto, escrituras antiguas, como la lista de pueblos alaveses de la Reja de S. Millán (siglo XI), prueban la existencia de la aspiración, que se transcribía con «h». Lo mismo se observa en escrituras tan antiguas como el Becerro Gótico de S. Pedro de Cardena, donde se nombra a un tal Belasco de Ahardia, vecino de Villabáscones en el siglo X. A(h)ardi hoy mismo es plabra vasca usual y significa marrana, cerda madre. 4) La literatura vasca posee muchas obras de calidad, tanto antiguas como modernas, en que es imprescindible la «h».

En concreto la «h» intervocálica, aun cuando unos la pronuncien y otros no, resulta beneficiosa en la escritura como medio de fijar definitivamente ciertas grafías fluctuantes. Por ejemplo, el nombre vasco de la cama se escribirá «ohe» «ohea», y de un golpe se suprimen tantas variantes: «oi», «oge», «oya», etc. El vocablo que significa boca se escribirá «aho», y automáticamente se eliminan «abo», «ago», «aau» etc. El vocablo que significa necesidad se escribirá siempre «behar» y se quitan tantas contracciones y variantes, como «biar», «bier», «biot» (behar dot) etc. La «h» hace de tabique e impide la degeneración y corrupción, tanto fonética como gráfica.

### Objeciones y respuestas

Se objeta que la nueva regía viene a dificultar la grafía del euskera, por cuanto muchos no saben dónde hay que colocar la mencionada «h». La objeción tiene su peso. Pero no nos engañemos. El ideal de una ortografía fácil y sin dificultades ¿representa acaso un beneficio real al euskera o es al contrario un mal y una fuente de desprestigio? Todas las lenguas tienen sus intringulis y no hay más remedio que aprenderlos. Conocemos lenguas con ortografías bien complicadas y parece que esto mismo contribuye a que dichas lenguas se agranden y crezcan a los ojos de los que tienen que estudiarlas. ¿No se ha hecho observar más de una vez que la gente se inclina a juzgar (injustamente desde luego, pero es un hecho de psicología) como de poco valor los colegios gratuitos y baratos, y mide la categoría de los mismos por lo que cuestan? No pensemos que el criterio de facilitar y dejar todo libre y al arbitrio del usuario haya de reportarnos ventajas. Lo que parece práctico a primera vista resulta muchas veces lo menos práctico a la larga. Instintivamente pensamos que todo obstáculo es una simple rémora, pero ¿no sucede hartas veces que es un acicate, y, por ende, un factor de progreso?

### Discrepancias y portazos

Al adoptar una norma de éstas es inevitable que se produzcan divergencias y desacuerdos. También al unificar la ortografía catalana, hace unos sesenta años, se produjo el ruidoso portazo del canónigo Alcover. Pero a pesar de todo, la ortografía se unificó, y los beneficios que ello supuso para el catalán ahí están a la vista.

Pero los catalanes lo han conseguido gracias a una virtud que aquí es imprescindible: el sentido de disciplina, de cohesión y de responsabilidad. Triste es que los que debieran orientar y educar la opinión pública, se dediquen a campañas disolventes, de una irresponsabilidad inconcebible. Así no se va a ninguna parte, más que al fracaso.

Si por falta de disciplina y sentido de responsabilidad, no llegamos a unificar ni siquiera la ortografía, que es lo más fácil, despidámonos de llegar a formar nunca ese instrumento de civilización, que es la lengua literaria, sin el cual el euskera no podrá ser introducido dignamente en la escuela ni tendrá prestigio social ni vitalidad para resistir a tantas fuerzas como se oponen a su supervivencia.

euskeraz, balio onago duela bat bakarria yakitea baño», edo «Euskerak ez-diola kalterik egiten frantsesari (edo gaztelareri emendik begiratzen badugu)». Denak ados egon ziren eta esperantzetan gaude gure euskera sartuko dela hango Eskoletan frantsesaren parean.

### «Salmoak» berriro Aita «Iratzeder» eta Lertxundi aita beneditarrak antolatuak

Badakigu zeitzuk diran aita beneditar hauek. Mugaz besde aldeko Euskalerrian dagon Beloke'ko Prailategian bizi direnak. Biek, beste aldeko euskaldun anaiak. Bata, Aita Xabier Diartze, «Iratzeder» izengoitiz, poeta, olerkari fama aundiko eta gain-gainekoa. Bestea, Aita Lertxundi, musikalaria eta trebea. Aita bion artean «Salmoak» liburua argitaratu dute. Lan ederra eman diotena Euskalerriko Elizarentzako Beloke'ko Aita beneditar nauek.

Astean esan dugu berriro argitaratu dutela «Salmoak» liburua, eta alaxe da. Lengoa zana baño onago da. Lenago baño osotuago, doñuak besteak baño ugariago duena.

Gure apezantzako liburu interesgarria, liburu egokia gure euskal liturjiarentzako ere bai.

Gure goresmenak Aita biei.

### Benito Lertxundi'ren euskal disko bat

Eta euskaldun guziek erosi beharko zutena. Gazte honek badi-tu moldatuak euskal disko batzuek, Azkeneko honek «Kanta zaharrak» dauzka bere «barruan». Lau dira: **Suyet eder bat** Zubero-roko kantua dena; **Ardoa eta gizona**, Getariko; **Dugun edan** Larraun'goa, eta **Ama, ezkondu**, Larraun'goa ere.

Benito Lertxundi denak ezaguna da, «Ezdok Amairu» euskal kantari gazte multzoan dago eta Euskalerriko erri geienetan ari izana da bere lagunekin.

Exitu aundi, izugarri, izan dezala disko honek desiatzen dugu.

IKUSLE

# Iruñeko "Euskalerriaren Adiskideak" Elkartasunaren "LENENGO UDABERRIAREN LORE-YOKUAK"

Pasatu berri den Epailaren 21 egunean, besta orrentzako Naparroko Diputazioak atseginez utzitako Naparraren Museoan, atsaldeko zortziak laurden gutxienetan «Lenengo Udaberriaren Lore-yokuak» izan ziran Iruñeko «Euskalerriaren Adiskideak» Elkartasunak oso ongi antolatutak, Iruñeko «Lar Gallego» eta «Centro Catalan» direlako lankidetasun baliosuarekin.

Luzeegi izango litzake berri guziak emen eman baño nerretzat garrantzi aundikoak gutxienez saiatuko naiz agertzera.

Iruñeko «Euskalerriaren Adiskideak» Elkartasunarekin batean Azkoiti, Zangoza eta Tudelako Elkartasun anaiak ziran an.

«Lore-Yoku» auen Erregina Tudelako Ana Carmen Añon neskatil xar-manta izan zen eta onek bere inguruan, oorezko korte moduan, andreño auek izan zituen: Pilartxo Hurtado de Saratxo, Juana Mari Bandres, Maita Sanz, Mirian Amat, Balbanera Irigoyen, Lupe Hurtado de Saratxo, Mercedes Casas (au catalandar Etxearen partetik), eta Rakel Negro (au galiziar Etxearen aldetik).

Lore-yokuen mantenedorea edo maiburukoa Azkoitiko seme den Luis Iriondo poeta on, gisaoneko eta benetakoa izan zan.

Lore-Yoku auek lau izkuntzetako sariak zituzten: Lau euskeraz, iru erderaz, eta katalaneraz bat eta Galiziako izkuntzaz beste bat.

Sariak loreak, etorrizko loreak edo lore naturalak, bakarrik izan ziren; etziran bada diruzko sariak izan.

Lau euskerazko loreak, edo Sariak izen auek zauzkaten (alboan irabaz-taleen izenak jarri ditut); «Detxepare» Lorea, Garailea: Javier Garcia Tomasena, Goizuetako seme dena, «EGITAN» izeneko poesiarengatik, «Ez den mintza mingaina» ezaupide edo lemarekin.

«Venegas eta Figeroa» lorea. Irabaztalea: Manuel Elias Odriozola, Az-peitiko dena, «Egillearen egarri» izeneko poesiarengatik, «gaiztoa» lema-rekin.

«Etchahun» lorea. Irabaztuna: Bilboko Aita Frantzisko Uribarren, «Zor-ion Billa» deitutako poesiarengatik eta lemagabekoa.

«Jose Agerre» lorea. Irabaztalea: Frantzisko Zabaleta Leitzeko semea dena, «Askatasuna» izena duen poesiarengatik, «Jainko berri» lemarekin.

Euskerazko Lore auetaz gañera auek ziran beste izkuntzetako garaileen izenak:

Erderazkoak: Cipriano Acosta Nabarro, Gran Canariako Las Palmasen sortu eta bizi dena. Onek «Migel de Dikastico» lorea irabazi zuen. Poeta edo Olerkari onek ere beste erderazko sari bat irabazi zuen «Hermilio de Oloriz» lorea. Iruigarren erderazko lorea, «Alberto Pelárea» deitutakoa, Reusko Bernardino Grañak jaso zuen.

Cataluñako izkuntzaren lorea, «Salvador Spriu» izenezkoa, Anton Sala Cornadok bereganatu zuen, eta Galiziako mintzaerarena, «Alvaro Cunqueiro» izena zuena, Xixé Maria Perez Parallek irabazi zuen.

Poesia premiatiuen esaleak auek izan ziren: Euskerazkoak Ultzamako alaba den Olaia Erviti eta Gipuzteko Jose Mari Iriondo. Erderaz: Rakel Pascual eta Ignazio Odriozola. Katalaneraz, Mercedes Junkosa andrea, eta gallegoz Enriquez.

Bitartekoetan Iruñeko «Euskalerriaren Adiskideak» Elkartasunaren «Trio de Camara» delakoa ari izan zan eta oso ondo gañera. Irukote au Petra Carraskilla, pianoz, Alfredo Lumberraz, violinez, eta Jose Mari Arbizu, txeloz, osatzen dute.

Azkenean Iruñeko «Euskalerriaren Adiskideak» Elkartearen Buru den Erronkariko Jose Estornes Lasa jaunak itzaldi labur-laburrean parte artu zuten guziei baita ere besta onen antolatze lagundu zioten deneri bere eskerrak eman zituen.


Azkenerako itz bi ezdu idatzi gabe utzi nai Jorge Erramon Sarasa jaunari zuzenduak: Egiaz jaun au egiazko antolatzalea, apaintzale zintoa, eta aaztu ezineko besta onen zuzendari eta langillea izan zan.

Guretako, euskaldun napartarrentzako, alako alaitasun bat artzeko aitzakia badugu; izan ere, bi napar agertu dira garaille gure euskal alorreko loretxu tartetean: Javier Garcia Tomasena, eta Frantzisko Zabaleta. Ongi etorri izan ditezela euskeraren «parnasori», gure euskerak ez ezik Naparrak ere euskal izkribitzalle bear ditulakoz.

Besta eder au Iruñeko «Caja de Ahorros Municipal» delakoaren diru-laguntzarekin egin zan.

## AU ZAN BATEK

**OHARRA.**—Iruñeko «Euskalerriaren Adiskideak» Elkartasunaren baimenarekin Loreak irabazi zituzten bi euskerazko poesiak argitaratu ditugu. Elkartasun maite honi gure eskerrik biotzkarrenak. Esker aunitz!!



“JOSE AGUERRE” LOREA

## ASKATASUNA

Olinpo mendian tximista erori da; ia ezta jainkorik Olinpo mendian. Zer gertatu ote? Nola tximistak erre bere nagusiak?

Leiza zuloetan lamiak izkutu; sorgiñak aspaldian ez dira agertu; beren begiratu ederra eta orrazea ta kalpar ori luzea nun dira? Askatasunak iritsi omen ditu!

Bai, askatu dugu gizona ortziko lokarrietatik. Orain lurrean gizona ta gizona gizonak bakarrik.

Ala ere askatasuna oraindik urruti

Ta gizonok alkar menperatzalleok erabiltzen dugu orain itz askatasuna gabiltzanean burruka alkarren aurka: Askatasuna batzuek askatasuna besteak. Olinpo utsera Jainko berria igo da: Askatasuna.

Jainko gazte jakin zazu lehengoak ere gizonak igo zitula ta ondorean gizonak erre!

Zure izena bera ahaztu nahi nuke, Jainko egiten bazaitugu zure izenean biurtuko baigera menperatzalle.

Guda ta karraxi zalaparta ta txinparta hemen gabiltza eziñ konponduaz.

Zuk Jainko gazte, zuk daukazu itza gure bizitza zuzentzeko. Jetsi zaitez Olinpotik etzaitzela izan izen.

biurtu zaitez aragi, jetsi suburbioetara, ikusi ume larrugorrikoak, iriki menperatzalleen espetxeak, erakutsi danak larru gorrian jaiotzen danak ahuts bertzen, libratu

herri oiñperatuak. Egin gaitzazu danak berdiñ berdiñ!

Ez gelditu Olinpoan Jainko gazte; jetsi, jetsi!

Lema: Jainko berri Frantzisko Zabaleta

## “DECHEPARE” LOREA

## EGITAN...

Egi begi bizi nai.

Argi nagi gaur biar etzi ni.

Ezur gezur lur uts.

Bakardadean illuna. Ene barnean eguna.

Munduan gezurra. Lurpean ezurra. Mendian elurra.

Baduzu bihotzean pena.

Gizona andrea. Ez-zera berdina itxuraz et'animaz.

Egiak lotsatzen bizia oinkatzen.

Mendi gainean elurra Gizon tartean gezurra

Ezur gezur lur uts.

Nekea, zigorra, nigarra, egiak.

Baino barnean eguna.

Ez den mintza mingaina. Solas ontsa bihotza.

Gezurak bakea. Egiak kaltea. Baino barnean argia.

Zeruan izarra dirdir egitan. Lurrean gizona egitan nigarra.

Argi nagi gaur biar etzi ni.

Zonbait begi ainbertz-egi Baino egia bakarra Yainkoak emana Eskuara Nafarra!

Ez den mintza mingaina. Solas ontsa bihotza.

Eliz dorrean orena. Belai onean lorea. Ene barnean Euskara donea.

Nafarra zure egia Euskara.

Beti egi bizi nai.

Zure anima eskuaraz mintzo. Zure mingaina...

Solas ontsa bihotza.

Bakardadean illuna. Ene barnean eguna

Gizonak egia. Egunak argia.

Yendeak iria. Amatik alkia.


Lainoek euria. Ardiek esia.

Erleak ezlia. Elurrak xuria.

Piztiak sasía. BEARRA

nik ESKUARA NAFARRA!

Lema: Ez den mintza mingaina. Xabier Garcia Tomasena



# IKASI, MIKASI...

## ¿APEZ ONA, TA SANTU EZ IZAN NAI?

- Jainkoak diola eun on, jaune.
- ¡Ola, Joshe Miguel! ¿Zer diote Imoztarrak?**
- Oaiñ Iruñen bizi naiz, jaune. Ia bi urte badeamazkik nee alabaan etxin.
- Ta, ¿etsitzen zera?**
- Denbo txarra daonin, pixkeat aspertzen naiz. Batee lanik ez, ta, txorii kaiolan bezala, leiotik beire eon bear...
- Naiko lan egin duzu zuk iruetan ogeita amar urte arte. Orain egin dezatela lan gazteak...**
- Jaune, ¿badaki zein den nee neke audiena? ¡Gure erlijio santua nola galtzen ai den ikustea!
- ¿Zer diozu, gizon? Gure erlijio santua ez da galduko beñ ere.**
- Nik ee ola uste'ot, baño oaiñ ez dao lenaoko errespetoik.
- ¿Zetan?**
- Iñoi esan ez diotena, beorrei esan dezakioket. ¡Apez asko ekusten thot kalean, ezoin gizon bezala jantzita! Elizen ez bada, ezin da nabai nor den apez. Nee alabak ezaotzen omen tho lepoko thathar txuri puxketan.
- Orrek ez du deus esan nai. Len Inglateran ta Ameriketan apez askok zeramatn traje orrek «clergyman» du izena. Konzilio ondoan, mundu guztian barratzen ari da, batez ere apez gaztien artean. Eliz Ama Santak eskubidetu duana, ezin dezakegu, bada, esan gaizki dagoala.**
- Beorrek, beste apez askok bezala, ¿zeengatik ez du jazten «cleriman» dioten oi?
- Esan dizut, eskubidetu dagoala, ez beartua. Uste dunak obe dela ola jaztea, jantzi dezala. Neri, nagon eta nabillen lekuetan, etzait iruditzen aldatzea ainbeste urtetan deramaten jantzi au. «Ardo zarra, zagi zarretan, eta ardo berria zagi berrietan», esaten det nik, Ebanjelioak dion bezala.**
- Jaune, ni ez naiz nekazari gizaajo'at besteik, baño, naiz sotana jantzi, naiz «cleriman» jantzi, Jesukristoen ordezkioa denak, bear bizi modu guzian eakutsi bear do beste ezoin gizona baño geiao dela...
- Ortan, bai, arrazoie duzu. Ara, emen, «ECCLESIA» izena duen aserokoa, 1.430 ko numeroak, non dakarren Aite Santuak aurtengo garizumako predikadorea botatzen dituzte:**

*"Ez dire ain gutxi, apeza berdindu nai dutenak beste edozein gizonekin: jantzian, ofiziotan, jokuetan, politikan, familian eta. ¿Ortarako berezitu zituan Jesukristok apostoluei beretzako, bere alde lan egiteko? Egi da ortarako, berak, pozik eta naita, uko egin bear dutela mundun bizi diren beste gizonen eskubide batzuei. Ordainez, eskintzen dizkie beste aberastasun aundiagoak: «eta naiz etxe, naiz sende, naiz guraso, naiz emazte, naiz soro, nere izenagatik uzten dituenak, eun alako artuko du, eta betiko bizitza iritxiko» (Mateo, 19-29).*

- Beste gauze bat det ezin ikusi.
- Esan, Joshe Migel, esan.**
- Atsaldetako meza.
- ¿Arratsaldetako meza? ¿Etzuen, bada, Jesukristok eman lendariziko meza apalondon? Ta, ala egiten zuten lendariziko kristauak, baño, fedea oztu zelako ta batenbat erdi mozkor arkitzen zelako apalondon, agindu zuen Eliz Ama Santak goizetan bakarrik, eta baru osoan, meza eman da komunioa artzeko. Orain, piskebat leundurik gaudela ustean eta ainbeste ta ainbeste bai dire goizean meza aitu ta komunioa artu etzezaketan, eskubidetu du Elizek arratsaldetarako ere.**
- Oaiñ ee, boondate ona duenak, aise joan diteke elizea eguerdi arte.
- Ezetz, gizona, ezetz. Orain, gizon eta emakume askok lan egin bear dute gabez eta goizetan, kliniketan, ospitaletan, autoetan, trenetan eta... Oiek erraxago dute atsaldetan meza aditzea ta komunioa artzea.**
- Esan beza, Jaune, ongi eo gaizki daon nee etxin ekusten detana. ¡Atsaldeko seietan beendatu, ta zazpiterditako mezan komekatu...!
- Al izan ezker, obe da goizean meza entzun eta komekatzea, baño, badakizu, eskubidean aitzakiz, errax da lasatzea, batez ere, gabez telebisioa ikusten egonda, beranduegi oeratzen denean...**
- Asi geran ezker, ¿ze iruitzen zaio launbeta atsaldetako mezataz?
- Oso ongi dagoala, ta, arrazoion bat dutenak, bete dezaketela igandetaz.**
- Len etzen baa olakoik ikusten...
- Len geienak nekazariak ziren, baño orain gizon eta emakume asko egon bear dute aste guztian zulo batean, satorrak bezala. Oik, igandetaz, nai dute aize piskebat artu, itsaso aldean edo mendietan. Orrengatik, Eliz Ama Santak, ama delako, eskubidetu du larunbetako eta jai bezperetako meza.**
- ¡Amiste erraztasuneekin, erlijio guzii galduko da!**
- Ez bildurrik izan, Joshe Migel. Orrengatik ez da galduko gure erlijioa.**
- ¡Eztaikit baa...!**
- Naiz goizetaz, naiz atsaldetaz eta naiz larunbetetaz, jendea elizera joaten den ezker, ez dago peligrorik. Txarrena izango litzeke, ainbeste alperkeriekin eta gozatu naiekin, fedea gaitzea. Sermolari famatu arrek zion bezala, «ez da komunismoa erlijioan etsai gaiztoena, baizik KOMODISMOA». Badirudi, askorentzat zerua lurrean bakarrik dagoala. Erioz ondoan deus ez balitz bezala, emen gozatu nai dute, ta nolanai. Ortarako, diru asko bear baita, jai-igande goizetan, lan eta lan: alorretan, talleretan, edo mendietan, eta. Atsaldietaz eta gabetaz, dantza, zine, taberna eta parranda.**
- Gue errin, bai, Jainkoai eskerrak, baño ciudadetan, ¿nor joaten da Bezperetaz? Geo, gue apezak esaten zuena: «Bezperak uzten thunak, mezaree audo utziko do...».**
- Egi da, Joshe Migel; egi, zori txarrez. Mundu guztia, batez ere gaztedia, badirudi erotuta dagoala. Orain ogeion bat urte, apez zar eta santu batek, esan zidan gauze bat, beñ ere aztu ezin detana.**
- ¿Ze esan zion, jakin baditeke?**
- Meza ondoan, sakristian giñela, esan zidan:**
- «ZUK ONGI GORALDU DUZU GURE SANTU PATROIA, BAÑO NIK EZ NUKE SANTU IZAN NAI».**
- «¿Zerengatik?» esan nion.**
- «Zerura joain nai dot, baño aldaretara igo biñepin, ez; zergatik, ¿noiz egiten dire pekatu geiago, aste egunetan edo jai egunetan...?».**
- ¡Ta, arrazoie zuan apez zar eta santu arrek! ¡Jai-igandeak jarriak dire Jainkoa ooraturtzeko ta, garbitasunean eta neurrian, atsenden artzeko; ez alperkeri ta jostaketa zikiñendako!**

A. ASTIZ ARREGI

# PILOTARIAK

Aurtengo España'ko pilotarien esku-huska ta buruz buruko txapelketa aintzinat doa zein-gehiagoketa hortan sei lendariziko mallako pilotari ari direlarik, hoiien artean Elortza, Bergara, Andueza, Tapia, Retegi, Azkarate ta Atano Txapeladuna.

Lendariziko partidari izanak dira Elortza ta Bergara eta gure etxalartarrak aisa irabazi 22-3.

Bigarrenean berriz Bergara eta oraingoan Andueza azkoitiarraren kontra. Partida hau izigarri ederra izan omen da, len-lenbizirik Bergarak aintzinaldia hartu zuen eta gisa hortan eta neke aundirik gabe amalaugarren tantoa erdietsi artio bere kontrarioak oraindik bartz tanto bakarrik zaukela (14-5). Orduan trabesak 1.000-90'ri etxalartarraren alde otsegiten zutela, iduri baizuen partidak kolorerik etzaukela. Baina Andueza'k ez zuen amor eman nai eta nonbaitetik indarrak aterata ernatu zen eta lerro lerro zazpi tanto egirik bi puntu baizik etzituela falta etxalartarra berdintzeko (12-14). Orduan trabesak 100-70'ri oraindik naparraren alde. Bergara ez dago lo eta berriz bere ahalmen aundia agerturik airez aire egin zituen azkenengo zortzi tantoak bere kontrarioa amabigarrenean utzirik. 22-12. Lenago ere Txapelketako bi partida badituzte elkarren kontra yokatuak eta hunekin irugarrena. Lenagokoetan naparra ere irabaztule gertatu 22-17 eta 22-14. Oraingoan 22-12 irabazi du baina partida hau izan omen da denetan atakatuena eta politena.


Bergara etxalartarra bi pilotari hoiek menderatu ondoren Tapia azkoitiarrarekin ari izana da, baina oraingoan bere esperantzak suntsitu dira. Azkoitiarrak irabazi dio, yustu yustu bai baina irabazi 22-21. Aunitz aldiz iñork uste ez zuena gertatzen da eta oraingoan ere orixe bera gertatu zaigu. Tolosa'ko «Beotibar» frontoia bete bete yendez eta trabesak 200-120'ri etxalartarraren alde otsegiten zutela. Lendariziko tantoetan etxalartarra aintzinean bederatzitu puntu lerro lerro egin zituelarik 9-0. Orduan trabesak 400-50'ri bere alde. Gero Tapia ernatu zen eta amargarren tantoan berdindu 10-10.

Plazako zola bustia dago eta irristeri aundia bada, bi pilotariak noiz nai lurrera eroririk beren burua arrixketzen dute. Partida atakatu da eta amabigarren punduan ere ados. Gero berriz ere ameretzigarrenean berdintzen dira Bergara'k bere alde 17-12 izan ta ondoan. Orduan trabesak 100-70'ri azkoitiarraren alde. Gero etxalartarrak bertze bi tanto egiten ditu eta garaipeña eskuetan dauka. 21-19. Eta gero zer gertatu zen? Aunitz

aldiz ikusten duguna. Tapia'k ez zuen bere burua makurtu nai eta bi tanto egirik berdintzen du partida 21-21. Azkenengo tantoa saketik egiten du eta azkoitiarra irabaztule 22-21. Partida atakatu izan omen da baina ez alako ona, pilotariak irristeritzen ziren eta beren ahalmenak gisa hortan menderaturik etzuten bertzetan bezalako yokoia egin. Tapia'k eta Bergara'k badituzte lenago ere bertze iru partida elkarren kontra yokatuak eta etxalartarrak lauetan galdu.

Orai Tapia Retegi'ren kontra ari beharra da eta segur gara partida hunek burrunba aundia aterako duela. Goan den urtean Retegi'k aisa irabazi zion eta aurtun zer gertatuko da? Beti ere pilotazale napartarrok Retegi'ren baitan uste osoa dugu eta orai zai egon gaitezen.

ANZANARRI



# ON-BIDEA, AMA

Illunabar batez, berze aunitzetan bezala, gizon sailtxo bat bildu ban erriko arandegi batera. Olakoetan gertatzen dana, danok dakigu. Lagunek laguneri, erran behar aunitz. Ardo edan, belarra erretzeko: ta belarra erre, ardo goxokiago iresteko. Ta bizkitartean bakoitzak, ongi bator, bere alderdi onak agertu ere bai. Trabeslariak, kantariak, ateraldizaleak, bersolariak, piztahazten diturdo onak bilkura oietan.

Illunabar ortan, ardangelako txoko batean iarrira zeuden bi gizon; adinean sartuak, baña osasunez bizkor biak, beren muxu-gorriarekin ardoan egiten zabela adieraziz.

Ostatuko lagunak ohartzen dira bi oietan, ta «alkarri bersotan ari dituk: goazen entzun» diote. Baña, ixildurik ere, etzuten entzuten ezer, apal-apal ta elkarrentzat ari zirelako, ardo-potaxa bakarrik beren etzuletat autatu balute bezala. Urbildu beharko entzutekotan.

Solas fuintsezkoak zituzten biok elkarrekin:

Zure ama zenak, on aundiak utzi zizkizun?

«Amak eman zidan biotz maitasun:  
Amak eman zidan on aziera:  
Amak eman vidan indar, naitasun:  
Amak eman zidan bizitz ioera».

Bere erakusteak, norañoak?

«Amagandik dakit Aita maitatzen:  
Amagandik dakit Ait-Amen ona:

Ait-Amen bidetan pozik saiatzen:  
Ait-Amek dakarte bai, zoriona!».

Zure amakin izaten zinen solas-bide?

«Amakin euskeraz nere itzketak:  
Amakin xamurki nere otoitzak:  
Amakin, altzoan, nere oietetak:  
Amakin taupadak nere biotzak».

Arek erein zuan azi on orrek, irau du zure biotzean?

«Amarengandikan itzkuntz ezta:  
Amarengandikan Kristautasuna:  
Amarengandikan eusko bizia:  
Amarengandikan sinimenduna».

Itzez gañera, egitetan ere ona izango zan zure ama?

«Amak asetzen zun nere gosea:  
Amak epeltzen zun nere otz-miña:  
Amak sendatzen zun gaitz nai-gabea:  
Amak egiten zun... nik ez egiña».

Amaren baitan zinen ustea, osoa al zan beti?

«Amari nik oi uste-aldian:  
Amari nik aitor nere bildurrak:  
Amakin itz goxo pozen tartian:

Amak ontzen zitun nere makurrak».

Zerbait-zerbait gordeko zinen zure kolkorako?

«Amak bazazkin, bai nere asmoak:  
Amak bazazkin, bai nere illunak:  
nere eritasun ta ezin loak:  
ixilean gorde nahi nitunak».

Ta, zure zakarkeriak, aitortzen zenizkion?

«Amaren begiak dana ikusten:  
Amaren biotzan dana nabari:  
Gaizkian, Arentzat Nintzan itsusten:  
onean, ordea, eder Amari!».

Zure txarkerietan, ederrak entzuten zenituen bada?

«Amaren burutik egi garbiak:  
Amaren egotik itz indartsuak:  
Biotzetik zitun Ama gartsuak ugari neretzat Goi-iturriak».

Orelako ama, ze ontasun ederra!

«Ama maitagarri!  
Ama osoa!  
Mehatze oneko Urre garbia!  
Izazu zeruan bizitz gozoa!  
Nik, Zuri iarraikiz, ango argia!».

IBARRONDO

# ERRIZ-ERRI



## BAZTAN

### PILOTARIAK

Pilotari baztandarrak Nafarroa'ko txapelketetan beren ahalmenak erakutsi dituzte eta txapelidun atara ez badira ere, Baztan'go eskualdea leku onen ezarri dute.

Goan den San Jose egunean Iruñe'ko «Labrit» pilota lekuan Nafarroa'ko txapelketako azken partidak edo «finalak» yokatu zituzten (Primera B deitutako kategorian) «pala corta»'ko partidari iturralde ta Sanzberro elizondarrak galdu zuten Juanmartiñena ta Saralegi'ren kontra 40-17. Esku-huskako partidari erratzuar Etxandi ta Agerre'k ere galdu Azkate ta Mugurutzarekin 22-17. Baz-

tandar pilotariak Txapelketako bigarren Saria etxeratu zuten eta eztago gaizki. Zorionak.

• Irurite'ko «San Migel» Batasunak antolaturik, Oronoz'ko Maristen frontoi aundian «Yoko-garbi»'ko txapelketa bat yokatu dute. Bereartan ari izanak dira mugaz bertaldeko pilotariak iruritarrekin batean. Txapelketak erreliste aundia izan du eta partidak ere aski gustagarriak. Martxoaren 9'an yokatu zituzten azkenengo partidak edo «finalak» eta hemen partidaren goraberak.

Lenbiziko mallakoak. Couartou eta Ugartemendia Hendayarrak 40.

Berterretxe eta Ospital Baigorriarrak 37.

Bigarren mallakoak. Alzate eta Borja Hendayarrak 40.

Ripa eta Iturralde Iruritarrek 32.

Zorionak pilotari guzietan batez ere iruritar pilotari gazteei eta Txapelketaren antolatzaileak ar ditzala gure goresmen bizenak.

### «INSTITUCION PRINCIPE DE VIANA»

Nafarroa'ko Diputazioko «INSTITUCION PRINCIPE DE VIANA» Batasunaren eskuararen aldeko sarak, asmo onak ditu eta bere Aintzindariak zenbait lan egin gogo dute. Lehenik Baztan-Bidasoa'ko zenbait eskoletan eskuarazko ikasaldiak indartu. Hortarako erakasle jaun zenbait izendatuko dituzte eskola hoi-etan egunero ordu erdi bateko erakustaldia emateko. Eta ez litzake gaizki ere aurren artean idatz-leiaketa edo iskribitzale konkurso bat egiten baginuke, hori izanen litzake gauzarik baliosoenetako bat. Iskribitzaleek sari onak izanen luteke eta ez litzake inor geldituko bere saritxo hartu gabe. Nik uste dut «INSTITUCION PRINCIPE DE VIANA»'ko aintzindariak zer edo zer prestatuko dutela eta holako zerbaitegiten balitzake eskuarak aunitz irabaziko luke. Ikusiko dugu aurtengo udara aldira zerbaitegiten daiken.


M. IZETA

## MALDA-ERREKA

### ARTZAIK EZ KONFORME

Lau-Errieta'ko mendietan bazkatu bear diran ardi bakoitzarentzat amar duro pagabearra omen daukate urtean. Aiuntamentuak artutako erabakiaz ez dira inola ere artzaiak konforme. Neurri ori, artzaiak (ardidunak) diotenez, inolako ta geigizko pagabearra izango omen da. Lagundu, lasaitu ta eratu bearrean ganaduarenganako arreta, estutzen ari omen dira erri oietan. Orrela, inork ezin dezakela ardirik azi ta euki. Jakiña! estutu ezker, ezer ez dago egiterik.

«LANDA-BERRIKO ANUNTXI»



# EUSKERA GORATZEA...

## NAPARRUAKO DIPUTAZIUK NAI DU... (M. X. URMENETA)

### EL VASCUENCE DEBE SOBREVIVIR PARA QUE EL ESPIRITU NO MUERA...

Prof. Pierre Naert (Suecia)

Naparruak datorzkigun, edo Naparruari buruz idazten diran berri denak begiko zaizkigu.

Iruñian ikusten ditugu batasun zombait, ara nola, «Lurraldeko adixkideak...», «Oberena» eta denen buru «PRINCIPE DE VIANA», Naparruako Diputaziaren babesean bizi den batasuna. Eta badut uste, nik bezela, euskaldun denak gogobiotzez ikusten dituztela batasun oiek, bakoitzak bere aldetik, egiten dituzten lanak.

Batez ere euskeraren alde. Egun batez, «Diario de Navarra» deitzen den egunkarian itz oiek irakurtzen genitun: «...Mikel Xabier Urmeneta Diputadu jauna Doneztebe'ra eldu zen, eta itzalditxo mamitsu eta laburra esanez onelako itzez bukatu zuen: «NAPARRUAKO DIPUTAZIUK NAI DU EUSKERA GORATZEA, euskeraz esanez gañera». «Jainkuak nai du euskera salba dedin», esan zuan aita Cardaveraz'ek.

### DIPUTAZIAREN LANA

Geroztik «PRINCIPE DE VIANA» batasunak erriz-erri festa eta sariak eratu ditu, batez ere aurretan euskera berpiztu dediñ, edo beintzat Naparruan euskerarenganako amodiua galdu ez dediñ... Naparruako eremuetan... no se el vasco ni... falta que me hace», inork ez dezan esan.

Eskoletan ere euskera erakasten asi dira.

Baña, egia esan, gaur erakasten dan eran, ez dugu uste euskeraren alde lan aundirik egin litekenik.

Egarriz itotzen ari den bateri... ur ttantto bat edo bi ematia besterik ez bai da gaur eskoletan egiten den lan ori.

Bainan alaz ta guzti, «gesto» bat da, atsegingarri eta guk onartzen degun «gesto» bat, euskeraren aldeko maitasuna erakusten digun «gesto» eder ta goragarri bat.

### EUSKERARENGANAKO AMODIUA

Bai, Naparruako Diputaziuk bereziki erakusten diguna da, euskeraren aldeko maitasuna sortu bear dela euskaldunen artean.

Euskaldun denak senti dezatela, egun batez, Agud Querol jakintsuak, eta justuki euskerari buruz, esaten zuana: «...No hay insulto mayor inferido a una persona que el desprecio a su lengua...».

«...Euskerari ematen zaion matrallako bakoitzak, nere onetik atertzen nau...» esaten digu pazientzi aunitz daukala esaten digun eta denok ezagutzen degun Basarri adixkideak.

Euskera bazterreratu eta mespreziatzen duten denak... ez dute besterik egiten.

### NADIE RECHAZA A SU MADRE POR INUTIL...

Itz oiek esaten zituan beste bein, eta arrazoi guztiarekin, Urmeneta jaun berak «Navarra y el vascuence», deitzen zen, eta irakurri berri degun artikulua batian.

Bai, euskera guria da, eta gure familiko arbasoen lokarri... inorenzako gorrotorikan gabe, gu euskaldun egiten gaitun izkuntz-lokarria, erdera ikasten galerazten ez digun izkuntza, eta batez ere euskaldun ama bateri... beste inungo izkuntzak ezin eman zezaken goxotasuna ematen dion izkuntza.

Munduan zear ibiltzeko, bear diran ainbat izkuntza ikasiko ditugu.

Eta kontu oneri: izkuntza oiek ikasteko, euskera jakitiaz emango ditu —askok uste ez izan arren—, euskera jakitiaz emango digu, sinistu ere ezin dezakegun erreztasuna.

Ori probatuta dago. Eta euskerak aurrak nahasten dituala esaten dutenak... ez dute agirik esaten.

### LIMOUSIN'DAR BATEN LEZUIA

Juan den egun batez, regionalis-

mua zala ta, Limousin deitzen den eskualdeko andre bat, Franzisko telexibituan mintzo zen.

Eta garbiki eta sutsuki aitortzen zigun, Limousindar bat ere etzela eskualde ortako izkuntz-berezia mintzatzen etzuenik.

Izkuntz-berezi ori, «patois» deitzen den izkuntza kaxkar bat beste-rik ez da.

Lezio ederra benetan limousindar emazteak, eta arek bezela beste mundu guziko jendeak, euskalduneri ematen digutena...!!

Arazo ontan euskaldunak, kultura duten erri guztien lotsagarri gera.

### GURIA DALAKO...!!

Mundu guziko izkuntzetan, euskera, ez «patois» koxkor bat, euskera izkuntz miresgarrietarik bat dela, esatia... zozokeri bat da.

¡Ainbeste aldiz errepikatuta degu...! Bainan alaz ta guzti, gau bat aitortu naiko nuke emen, euskeraren odertasun orreri buruz.

Jakintsuak diotenez munduan badira 3.500 izkuntza.

Eta 3.500 izkuntza oiek, 19 grupo edo taldetan bereixten dituzte.

Badakizute zein grupotan sartzen duten gure euskera...?

Ez dago berantzat gruporik; BERAK BAKARRIK osatzen du grupo edo talde bat.

Ez da ori arrigari...? Ez da ori aberats...?

Bainan guk ez dugu orregatik euskera maitatu bear.


Guk euskera maitatu, eta Naparruako Diputaziuk esaten digun bezela, euskera goratu bear degu...

### ¡¡GURIA DALAKO!!

eta Sueziako Naert profesoriaren araberez.

Euskera zainduaz... gure espiritu zaintzen' degulako.

«HARIZPE»



## LESAKA BETI AURRERA!!

Neri erriari agerpentxo bat egiñaz, arkitu naiz berri pozgarri baten aurrean. Ez. Etzegun ukatzerik. Egia zan!

Benetan, maiztxo urbiduko nintzake txoko ontara, etorraldi bakoitzean olako edo antzeko egi baten bat arkituko banuke.

Gauz auekin, nik ikusten dutena da gure erria, ta aiiñ zuzen, Naparro guztia, ernatzen ari dala. Berpiztuzten, izandako ederkin edo aintz apaingarria berriro sortu naiez. Ez lurralde aundi bat eskuratuz. Napartar guztien nai ta biotzak bilduz, aietan kultura ta gizontasun bikañen azia ereiñaz, baizik. Ona emen biarko Naparroa. Ikusita dago joera onen etorkizuna.

Lendabizi, bearrezkoa izango zan erri ta erriar guztieri eguneroko lantegi egokia antolatzea. Etorri ziran fabrikak. Jaio zan artezia, industria. Ta jendeak, beste aldetara jotzeari utzirik, bertan geratzen ziran, neurtu ezin litezken «ur» goxoak ixuriaz napar errietan. Au izango zan asiera ta onekin salbatzen genuen gure euskal jatorrasuna. Ageri dago, euskaldunok beste lurraldeetan barna ibillirik, gure erriak aul, indarrik gabe geratzen zirela. Joan ziran gurasoen semeak etzeuden emen, aiek asitako lanak jarraitzeko. Aiek utzitako oitura, jatorrasun ta izkuntzak zaitzeko. Ainbeste eundaka ta eundaka urte-tako euskal baloreak galtzera ginjoazin, aipatu duten ernaketa au ez-bazan etorri.

Naparro berri bat sortzeko asmoetan gabiltz. Poliki poliki, ba-goaz. Joan zana berriro azalera jaso nai degu. Ontarako, izan zan artatik asi gaituzten. Bizi berri bat eman bear diogu, aspaldian izan zana eraberrituz, an baidago Naparroaren egiazko oñarria.

Gordeta dago orduko jakintza. Ori berriro loraztu bear degu; indarberri. Orduan, Naparro berria sortuta dago. Egiazko erri aurre-ratu bat nai badegu, arkitu ditzagun aien oiturak ta ildako gizontasuna. Au berpizturik, bestea bereala eskuratuko degu.

Adiskide: laguntza eskatzeak ez dauka ezer. Bañan askotan, nik uste, obeto izaten dala gere indarrak beartuztea, besteari laguntza eskatu baño. Ta, euskaldunok badaukagula indar sakon bat erriak kulturaz jasotzeko ez dezagun ukatu. Erabilliz, ez-genuke ezertxogatik laguntza eskatzera joan bearrik. Euskera izkuntza da kultura indar sakon au, azken gabeko eraetan biziutako izkuntza bat, aiiñ errez ote iltzea? Ta, ainbeste ta ainbeste aonetako mintzaira baño obeto, zer, erri baten jakintza ber-loratzeko?

Bañan, nora nijoa? Zer da, nere erriari agerpentxo bat egiñaz, arkitu dedan berri on ori?

Ikastetxe ta ikastolak indar osoz banatzen ari dirala Naparro guztian ukatu eziñ. Jakintza, euskal izkuntza, dantzak... danak bizi berri bat artu dute. Indar berri bat artzera dijoaz.

Esakerak? Ez; egiak. Egia Barrankan, Baztanen, Yruñan, Bidasoako Errekan. Egia Lesakan. Zergaitik emen? Au ere ernatzen asi dalako, napar erri izanik. Ikastetxeak bageneuzkan. Jakintza berexi baten bila gabiltz. Euskal jakintza baten bila. Ta, azkenik, ikastola sortu da. Gertoago esanda, ez, ikastola bat ez. Erri guztia ikastola biurtzera dijoa. Eun neska-mutil asi dira. Bañan, au asiera besterik ezda. Aurki, erriko ikasle guztiak asiko dira. Orduan sortuko da euskal sukarrak. Erriko izkuntza, dantza ta «folklore» guztia ernatuko da, udaberriant. Ta iltzera omen zijoan jakintza onek, berriro eskeiñiko digu bere irripar garbia. Urtez-urte bildutako egia.

Eun neska-mutil. Zintzo zintzo. Kultura bat berpiztuzten. Zorionak. Zorionak, au ala izatea egin duten aieri. Bidea idekita daude. Janez aseko gera. Aurrera. Beti aurrera!

ANTHON



## SALDIAS

### BAZTERRAK MOLDATZEN

- Jendea ez dago geldirik. Beti ari zerbaitere. Batzuek soro bazterrak moldatzen, besteak soroetako ote ta larrak ateratzen. Badira, eta oiek geienak dira, soroak ongarriz beltzaten ari direnak eta «mineralak» zabalzen.
- Aspaldiko onetan arbolei, batezere «fruta» arbolei, etzaio kaso aundirik egiten, naiz «frutak» gero-ta diru geiago egin.
- Alorrendako kisia erosi dutenak

ere baiditugu. Alorrek oso bearrezko dute kisia, bestela an egiten danak «vitamina» gutxi izaten bai ditu. Baño azia erein baño, illabete batez gutxienez, leenago eman bear zaio.

- Bei berriak ere sartzen ari zaizkigu errian. Illabete baten barruan lau sartu dira. Suerte on bat izan dezatela erosi dituztenak.
- Kanposantua moldatzeko asmoetan dira gure erriko gizonak, fameli bakoitzari zatitxo bana berexiaz. Nik uste orduan bakoitzak geuen zatitxoari begiratuko diogula.
- Gorritxiki'ko pinudian, egoki den bakan aldira egiteko markatzen ibilli dira erriko gizonak.
- Agudo kandelatzeko asmoak dira. Tantadi'ko arrobia. Artu nai dutenak badiralako otsak dira.

¡ILL EDO BIZI...!

## EUSKERA MINTZATUAREN... ¡¡AZKEN ATSAK!!

### AUTOKRITIKA

Federico de Zabala'k, justuki euskerari buruz, Donosti'ko «La Voz de España»n idatzi du: «...La autocrítica produce la mayoría de las veces saludables efectos; por eso es empleada desde el cristianismo al comunismo».

Eta Madrid'eko «SP» egunkariak dionez, Aita Sainduak esan du: «...La Iglesia se encuentra en una hora de inquietud, de autocrítica...».

Denak onartzen dute, delako autocrítica ori. Ona beste bi lekuko: Nestor Basterretxea, «Ama Lur» filma egin duan erlariari sonatuak dio: «...Kritika egiten duan erria biziko da».

Eta azkenik L. Mitxelena, Euskalzaindiko buruzagi den jakintsuak esaten digu: «...Aurrera joko bada, kritika zorritzaren bidez bearko da aurreratatu». Kritika, beraz, on eta bearrezko da.

### ZERGATIK GURE AUTOKRITIKA

Euskaldunen konzientzia ernatzeko. Euskera gordetzeko gaurdano sordu diran, eta guk ezagutzen ditugun batasunak, ara nola Euskalzaileen Bilzarra... Ikas... E.K.A. (eusko kulturaren alde)... Euskerazaleak, eta guk orain buruan ez ditugun beste batasun denak, EUSKALZAINDIA buru dutela, denak FRAKASO GOGORRA diralako.

Gaurdano jokabidearekin, naiz ta borondate onenarekin egiña izan, gaurdano jokabidearekin, gure euskera amilka goitik bera, leiza zulora dijualako.

Euskaldunen lasakeri, edo obeto esateko, euskaldunen palsikeri edo hipokresiaz naigabetuak gaudelako.

Euskeraren adixkide eta laguntzallerik onenak diran berak, batzarretan eta aldizkarietan euskeraren alde au... ta ura... eta bestia esaten ari diran berak, gero euren etxeko eta kanpua lagunarteko artu-emanetan euskera traizionatzen dutelako.

Ez degu guk esaten.

Begira VIII garren Congreso de Estudios Vascos deitzen den batzarren erabakia: «...porque los vascos instruidos, los que podríamos llamar la flor y nata de nuestro pueblo, son los primeros en dar un ejemplo funesto al hablar constantemente en español y francés».

Ez gera bakarrak euskaldunen palsikeri ortaz oartu geranak. Entzun Maite Iridin, andereño kantari lirañak orrukatzen diguna:

Ni euskalduna naz  
Guztiak diote arto ta bero  
Baño erderaz itzegiten dabe  
Kalen, etxean gau eta egunero.  
Zertarako orrelako gizonak  
Zertarako orrelako gazteak  
Zertarako hipokritak  
Zertarako hipokritak...!!

Bai, Erria bera konturatu da euskaldunen lasakeri ortaz. Garaia da, beraz, euskerarekin gertatzen dana, argi eta garbi azaltzeko. Garaia da gure AUTOKRITIKA egiteko. Garaia da Unamuno'k ARRAZOI ZUAN BAI EDO EZ jakiteko...

### GURE PESIMISMA

Gure esanekin ez dirala aunitz ados izango, ongi dakigu. Baño, arren da arren, gure aurkako arrazoi gisa ez dezala inork «gure pesimismo» aipatu. Bein batian P. Laffite, izkribazalle ezagunak, euskeraren etorkizun illuna agertu zuan jenderazko! alkar-izketa batian.

Eta galderak egiten zituanak esan zion: «Vous est pessimiste».

Eta berak erantzun: «Non nous analysons le danger pour pouvoir mieux vaincre». Euskeraz: «Guk irrixkua azaltzen degu, obeto menderatzeko».

«Le pessimisme est la source de toute énergie», esaten zuan Paris'eko teatro egille batek. (Euskeraz: «Pesimismo indar guziaren sorburua da»).

Ori bera erantzuten diegu, orain bertatik, gu «pesimistak» gerala esan naiko luteken deneri.

Gure pesimismoa ez da inor loarkatzeko, eta bai lozorrozko Nirvana gozo batian dauden euskaldunak esnatzeko, iratzarrazteko.

### EUSKERAREN ETORKIZUNA. EZ DAGO EZ PARIS'en, EZ MADRILLEN.

Aspaldi ontan Paris'era eta Madrid'era begira gaude gure izkuntzaren etorkizuna salbatzeko.

Andik etorriko dan laguntzaren zai bagaude... euskeraren illetak gertatzen asi gindezke.

Aspaldin esan zuan J. M. Barandiaran, gure jakintsu aundi bezin gizon apalak: «...Besteren itxaropenik ez dezagun izan. Euskaldunak ez gera euskaldun, erbestetarrak ortan lagundu digutelako. Eta berriz ere ez gera euskaldun izango besteren baitan gure izaera uzten badegu».

Orregatik zaigu aiñ begiko eta goragarri NAPARRUAKO DIPUTAZIUA, Madrid'eri begira egon gabe, euskeraren alde egiten duan lana onuragarria.

J. L. Davant, lapurtar idazleak egoki esaten zigun bein batez «Herria-n»: «...ez gaituzte arrotzek salbatuko. Laguntzen ahal gaituztela bai, dudarik gabe. Baina funtsezko indarra guhaurk egin bear dugu».

Guk ongixko ulertzen ditugu eskolak egiten duten ikaragarria, eta egin lezateken lan ona. Baño bego ortan arazo au gaurkoz. Ortaz mintzatzeko garaia etorriko da.

### GERTAKIZUN PENAGARRI BATI!

Bai, Madrill'eko orren eskaria dala-ta gertakizun triste bat agertu naiko genduke.

Orain berrito, 1968'ko Ilbeltzaren 23'an, euskera salbatzeko eta Euskerazaleak izeneko alkartasun bat sortu zan Bilbo'n.

Alkartasun orrek bildu ditu 50.000 firma, eta oiek besazpian dituala orjuan da Madrill'eko Ministruari euskeraren aldeko eskaera zonbeit egitera.

Egunkari denak berri ori salatu digute, bilbotarren gauz aundi eta izugarri bat bezela.

Eta au da penagarri: 50.000 firma bildu... Madrill'raino jua, naigabe oiek danak artu eta... egun oietan beretan Bilbo'n agertzen zen amabostero-ko ANAITASUNA bezelako aldizkari bat ILTZEN UTZI, diru eskasian!!!

Ori beltza da gero!! Barka nezatela esatera nijuana baño orrek ez du ez buru ez belarririk.

50.000 firma eman duten oietako bakoitzak amar pezeta bakarrik emanik —eta nork etzituan emango...—, 500.000 pezeta izango ziran.

ANAITASUNA SALBATZEKO naikua eta geiegi.

Guk diogu: Euskeraren aldeko lana eta egitekoa ez al zen askoz oibea, askoz itxuragokua eta probetxo aundiagokua izango, amar pezeta oiekin ANAITASUNA'ri bizitzen lagundu bazioten...?

(Gero beretik jarraituko zaio).

DR. HERNANDORENA

### SAN MARTIN JAUNARI BI ITZ

Atsegiñez irakurri det zure erantzuna. Zu iritzi desberdineko izatia, ez nau batere arritzen. Artzaiaren atzetik edo aurretik ixil-ixilik, bide batetik diujan artaldeak bai-da iritzi bereko bakarra.

Erantzungo dizut, beraz, eta gogotik. Zuk ikuitzen dezun eta ikusitzen ez dituzun beste puntu asko daude aztertu bearrak.

Eta jakin zazu, zuk apaitzen dezun azkeneko aldian erantzunik ez izatia, etzela nere eruz izandu.

Bainan, asi naizen bidetik okertu gabe, zuri erantzun aurretik, iruz-palau artikuluetan nere pentsaketak —zuzen edo okerrak—, agertu nai ditut.

Ondotik zurekin, eta iritzi desberdineko izan litezkeen denekin, argibiderik egokiena bilatzen saiatuko naiz.

Barkatu, beraz, eta urren arte esanaz uzten zaitut gaurkoz, nere agurrik oberenekin.

DR. HERNANDORENA



Erdaraz argitara ematen ditugu Nafarroako aurren euskal jostetak. Gure lankide eta Irakasle argia den Oñatibia jaunak interesatuta, euskerara pasatzeko bere asmoa erakutsi zautan. Orain bere gutizia bete dut, eta atsegin haundiakin argitaratu nai ditugu Orrialde huntan, Nafarroako gurasoek bai eta Ikastola gutzietako andereñoek ere baliatu ditzaketelakoan.

### ITSU KAPELU

Erdarazko «A la gallina ciega»-ren antzekoa da josteta au; ara: Mutil denak inguru batean daude, eta ba-

## Nafarroako aurren euskaldunen jostetak

tek ezkerretik eskubira banaka ikuitu dituz bakoitzari itzuntza bat esaten diola:

ARRIOLA - MARRIOLA - / KIN KUAN KIN / PORTAN ZELA / PORTAN MIN / ARREXINALET / SEGEREN / MEGEREN / KIRUN KARUN PEK.

Azkeneko itz-puntta tokatzen zai-ona ITSU gelditzen da Txapel (Bonetak) bat ezar, ikus ez dezan begiak estali eta gaiterako mutillak beren bonetak ongi lotu (bildu) ta aren bizkarrean ukaldika ekiten diote, ITSUA makurturik dagola; eta doñu au kantari:

ITSU KAPELU / NON DUK ANDRIA? / SASIAN GALDU / BILA BERTZIA.

Azkeneko itza esaten dutenean, inguruan dabilzan mutillen bat atxematera abiatzen da ITSUA, mutillak beren aldetik —aal dutenean— ukaldiak ematen dizkieten bitartean. Bat edo bat atxematen badu, nor dan igarri bear du, eta igartzen badu, atxemandakoari boneta (txapela) ezarriko diote. Eta egiten ez badu, bera ITSU izango da berriro, eta lehen bezala jostetan asiko dira.

### OILLAR DANTZA

ANTZARA JOKO basatiaren antza badu josteta onek. Urtean bein bakarrik egiten da. Ostegun-gizen egunean; ORAKUNDE izena ere ematen zaio egun orreri. Erriko Plazaren aldamen batean, oillar bat lurperatzen da (lurraren azpian sartzen), burua bakarrik agerian duela. Plazaren beste aldamenean erren-

kan daude jolas egingo duten mutillak, jaiegunetako jantzi apaindurik denak, eta egurrezko (zurezko) ezpata bana eskuan dutela.

Danboliñak doñu alai bat jotzen ari dan bitartean, eta onek seiñu egiten dien bezain laster, begiak musuzapiz estalirik daukaten mutill guztiak, oillarraren gana joango dira. Egaztaren burua leendabizi ikuitzen duenarentzat izango da oillarra, eta jaialdi gutzirako buruzagi izendatua gelditzen da; nexkaen artean bere lagun kidea bereixten duela.

Gero denen artean jaialdiari eta dantzari ematen diote asiera. Toki batzuetan ez dute, oillarraren burua ikuitzearekin aski izaten, eta askotan oillar gaixoari xautu eta sofriarazten diote. (Gaizki egina!).

### AXKENKA

Autamena egin ondotik, ogeigarren gelditzen dena izango da BETE, eta au gaiterakoen billa joango da, eta norbait ikuturik AXKEN esaten dion ura gelditzen da bete. Gauza bera egiten ariko da au, eta orre-la jarraituko dute beti txandaka, atxemana BETE gelditen dala, alegia.

SAREA izeneko jokoa, iduria da: BETE gelditzen dena gaiterako mutikoen atzetik joango da eta bat ikuitzen duen bezain laster, eskutik artuko du, eta banaka, besteak ikuitzera abiatuko dira, azkenekoarekin amaitzen dela josteta.

A. APAT ETCHEBARNE

# BND BERRIEMALE:

### MIXIUAK

Sekulako arreta aundia egin dio «Olabidea» aldeko jendeak «Etxebertzeko» bordan aste batez izan diran mixio saildueri.

Don Ramon Apeztexea, Almandoz'ko Erretor jaunak, eman dizkie. Bigarren aldia da mixio ori berak ematen duela lurralde oietan.

Olabidea lurraldeak, mendialdeak, aundiak dira. Baseri asko dira zabaldurik daudenak, denak, Oronotz, Arraiotz, Lekarotz, Irurita, Gartzain, Arizkun, Azpilkueta, Amairu, Urde-Zubi (Urdax), Zugarramurdi ta Etxalar'kuak elizaz.

Urrutietan bizi izangatik, oiek ere, karrikatarren eskubide berberak dituzte. Eta, aipatutako erri oietako apaizen esku zabal ta borondate oneri esker, ez daude atzundurik baseri oiek. Bertara igotzeko, ba-dituzte orain erreztasun geixea-go, zergatik, Diputazioak, erri ta Aiantamentuen eskabidez, egin die bide-berri eder bat, ez nola-nai kostatokia gañera; majiñabat arkaitz ta mendi urruturik egindako bide-berria. Milloiak sartu dirala... ez da gaitz, ez da mixterio. Bañan, ongi bearrezko zan bide-berria. Denen onerako ta erreztasunerako izango dan «karretera». Otsondo mendi gañetik artzen da bideberri ori, amar-amaika kilometro luze dauzkana.

Martxoaren ogei ta amargarrenean, igande arratsalde, eman zituzten bukaera mixio sailduari. Arratsaldeko lauetan asi zan elizkizuna bost apaizek batera emandako mezarekin. Elizkizunaren edertasuna ikusirik, askotxoren begiak «busti» ziran... biotzak ere zerbait nabaituko zuan...

Mezan, eskeintza'ko garaian, bi bertolarik, «Etxegaiko» Erroman'ek eta «Indeko» Juanitok, oso ederki bota zituzten bertso batzuek OGIA ta ARDOA denen izenean Yainkoari eskeñiaz. Gero, berriz, berdin gure Yauna artzeko garaian.

Itz batean: jende asko, denak alaitu ta elizkizunaren ondotik elkar ezin despeituz bezela, barra... barra bide xendetan gora bakoitza bere etxera. ¿Noiz izango ote berriz orrelako jende billerak ta elizkizunak lurralde oietan? Artu diran iritziak ta erabakiak izan dira: illabete bakoitzaren laugarren igandez me-

za bat emateko. ¿Ze atsegiña jendearentzat!

### ERIOTZA

Il berri dugu Lekarotz'ko «Etxebertzeko» bordako alaba, Genobeba Argarate Mihura. Ogei ta zortzi urte zeuzkan, oietatik ogei ta lau, eritasuna, naigabea zuan.

Ogei ta lau kalbario luze egin zituen; bera-gan, naigabe utsa zan; goibeltasuna; nekea; bañan, aldapagora, «gurutz-bide» luzearen ondotik erdietsi zuen goien-goiena. Igo zan mendi tontorrera. Zerura. Izan beza atsedent!


Emen, lurrean, naigabeturik utzi zituen bere guratso ta senideak. Baño, ustea ta esperantzaren argia aurrean duten ezkerre, fedearren izarra irarrituz, berriz ere berarekin elkartuko diralako ziurtasunean.

### EZKONTZA

Lezo'ko Gurutz Saindua'ren elizan, betiko elkartu zaigu Ugarte ta Gortari'tar Jesus mutil gazte jatorra, Oronotz'ko «Itxotoa» baserrikoa, Plaza ta Aroztegi'tar Julita neskatxarekin, Urde-Zubi'ko (Urdax'ko) «Mihura»'ko alaba'rekin.

Zorionsuak izan zaitezte!

## «KOLONBIAR BERTSO-TXORTA, EUSKERAZ», LIBURUA



«Laterri ontan bizi dan eusko gizatalde txikiak ezin eikeon aurkeztu abegi onez artu ebazen lur txeratsuari, aspaldiko euzkal izkera zarrera, euskerara itzulitako kolonbiar olerkarien bertsoak baiño erakuspen bizi garbiagorik». Argitaratzaileak eta itzultzaileak lan ardurazkoa ta txalogarria egin dute.

Kolonbiar-erti oiberean biltzen ta gure izkuntza, mille gizaldiz zarrean, nola esan jakin dute.

Edertasuna kantatzen duten bertsoak, injustiziak salatzen duten bertsoak, eta soinganeko animaren-tzat bertso atsegiñak aukeratu dituzte.

Baña berak, atz-errian auzoak, Euskal Erri'ko bizi antz-gabeoarekin, berean artu dieten laterriko bizian barnatu dutela garrantziduna da. Ta, elkar-aberastea, geien maitate dutena kolonbiarrei eskeiñi dute.

Itzuliko euskera geienik bizkaitarra da, baña, Jaungoikoa nai ba du, Euskal Erria'n edo kanpotan bizi diran euskaldun askok liburu eder au irakurriko dutela uste dugu. Olerki-xorta danontzat ele ederra badu.

Beraz, «Kolonbiar olerki-txorta euzkeraz» gure aspaldiko izkuntzan idatzi dan lenengo Amerika'ko olerkia da.

G. ECHANDI